

Gradu Amaierako Lana
EUSKAL IKASKETAKO GRADUA
2015/2016 ikasturtea
2016ko ekainaren 6a
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
UPV/EHU

Kode alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak

Egilea: Alejandra Iriondo Etxeberria
Zuzendaria: Maria-José Ezeizabarrena Segurola

Kode alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak

Alejandra Iriondo Etxeberria

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan euskara-gaztelania ukipen-egoeraren ondorio, gertatu den kode alternantziaren berri ematen da. Hasieran kode alternantzia zer den ulertzeko beharrezko azalpenak eta fenomenoari emandako hainbat izenen berri eman da. Horrekin batera, kode alternantziari ezarri zaizkion murriztapenak azaldu dira.

Ondoren, kode alternantziaren inguruan landutako hainbat ikertzailearen azterketak lanera ekarri ditut, ingeles-gaztelania hizkuntzen arteko ukipen fenomenoekin hasiz. Elebidunak diren hiztunen artean, ukipenezko fenomenoak diren mailegatzea eta kode alternantziaren artean onarpen maila desberdina dagoela ikusi da. Horrekin batera, elebitasun mailaren arabera onarpen maila ere aldatzen dela jakin dugu.

Kode alternantziaren baitan, hiztunaren hizkuntza mailaren arabera, kategoria funtzionala gramatikalago den hizkuntzak edota hain gramatikala ez den hizkuntzak ematen duela ikusi da.

Kategoria funtzionalen barruan, ingeles-gaztelania DS nahasietan, determinatzailearen ezaugarriei dagokionez gaztelania gramatikalagoa denez, lehenik ingeles-gaztelaniako DS nahasien auzia aztertu da. Generoaren adierazpidea hizkuntza gaitasunaren arabera desberdin islatzen dela eta DS nahasi hobetsienak elebidunen artean gaztelaniazko kategoria funtzionala dutenak direla ikusi da. Ondoren, D gaztelaniakoa izanik, maskulinoa edo femeninoa aukeratzearen arrazoiak aztertu dira, ingelesak ez baitu generoaren adierazpiderik, eta aukeraren arrazoiak hiztunaren araberkoa (elebidun, gaztelania L1 edo gaztelania L2) dela erakutsi da, D maskulinoa batzuentzat estandarra delako eta beste batzuentzat, ordea, itzulpeneko baliokidea lehenetsiko dutelako.

Lanarekin jarraituz, euskara-gaztelania hizkuntza ukipenean oinarrituz, lehenik bi hizkuntza hauen ezaugarriak azaldu ditut, jarraian datorren euskara-gaztelania kode alternantziarako hizkuntzon ezaugarriak garrantzitsuak direlako. Tipologikoki hizkuntza kontrajarriak direla ikusita, kode alternantzia egitea konplexua dela ikusi da. Buru

funtzionalek KAdun perpausen ordena ezartzen dutela eta buru funtzionaletan buru parametroa ezin garrantzitsuagoa dela aztertu da. Buru funtzionalen baitan, DS nahasiei erreparatu diegu eta generoaren auzia aztertu da. Horretarako, literaturak dioena ekarri dugu, generoa hautatzerako orduan zerk baldintzatzen duen jakiteko.

Aztertuakoarekin aurreikuspen batzuk egin ditut, eta ondoren datorren lan esperimentalean hauek frogatzeko xedea izan dut.

Lan esperimentala ingeles-gaztelania kode alternantzia aztertzen duen galdeketa baten bertsio euskaratua da. 38 itemek osatzen dute galdeketa eta DS nahasietan elebidun orekatuen lehentasunak aztertu dira, perpaus nagusiko hizkuntza gaztelania denean DS nahasien izena euskarazkoa denekoa eta perpaus nagusiko hizkuntza euskara denean DS nahasien izena gaztelaniazkoa denekoa.

Ondoren, hauen emaitzak azaldu ditut eta aurreikuspenekin bat datorrena eta ez datorrena frogatu ahal izan da. Azkenik lanaren ondorioak biltzen dituen atala dago eta DS nahasietan elebidunek generoaren ezaugarria badutela ikusi dugu, baina ez hainbeste hitzaren amaiera fonologikoarena. Halere, hitzaren amaiera fonologikoak itzulpeneko generoaren baliokidea mantentzen deneko kasuetan laguntzen duela ondorioztatu dugu.

Kode alternantzia, euskara-gaztelania, elebiduna, DS nahasiak, gazte hizkera

Aurkibidea

0. Sarrera.....	4
1. Ingeles-gaztelania ukipenezko fenomenoak.....	6
1.1. Mailegatzea eta KA.....	6
1.2 DS nahasietako generoaren auzia	8
2. Euskara eta gaztelania ukipenean.....	12
2.1. Euskara eta gaztelaniaren ezaugarriak.....	12
2.2. Euskara-gaztelania KA.....	13
2.3. DS nahasiak.....	15
2.4. DS nahasien generoaren auzia.....	16
2.5. Aurreikuspenak.....	19
3. Lan esperimental.....	21
3.1. Licerias <i>et al</i> -en bertsio euskaratua.....	21
3.1.1. Metodologia eta laginen tipologia.....	26
3.1.2. Emaitzak.....	26
4. Ondorioak.....	31
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	32
6. Eranskinak.....	34

0. Sarrera

Hizkuntza bietako elementu lexiko edota gramatikalak hizketaldi berean txertatzeari hainbat izen eman zaizkio literaturan. Ingeleseztan *code-switching* (CS) eta *code-mixing* (CM) deitu izan zaio, baina azken honek, CMek, nahasketa kutsua daukan bitartean, CSek txandakatzeari gehiago egiten dio erreferentzia. Euskaraz ere hainbat deitura hartu izan ditu fenomeno honek. *Kode alternantzia* (Amonarriz 2008, Ezeizabarrena 2014), *hizkuntza lerraketa* (Epelde, Oyharçabal & Salaberria 2013), *kode-nahasketa*, *esaldi nahasiak ekoiztea* (Ezeizabarrena 2013), *kode- trukaketa* (Rotaetxe 1999) zein *kode-aldaketa* (Aurrekoetxea & Unamuno 2011). Elebidunak diren gizarteetan oso ohikoa eta zabaldua den fenomeno da, hizkuntza-ukipenaren ondoriozko fenomeno bat baitugu.

Hala ere, hizkuntza aldaketa hau ez du gizarteak gogokoa izaten, eta hizkuntza ondo ez menderatzearen ondorio dela pentsatu izan da. Gainera, fenomeno honi deitzeko erabili hainbat terminoek - *euskañol*, *spanglish*, *ingleñol*, *mocho*, *Tex-Mex* - konnotazio gutxiesgarria dute. Hori dela eta, konnotazio bereizgarririk ez emateko, lan honetan *kode alternantzia* (KA) terminoa erabiliko dut.

KA moten artean, lan honetan euskarazko eta gaztelaniazko elementuez osatutako esaldi barneko perpaus nahasiei erreferentzia egingo zaie, Determinatzaile Sintagma nahasiei, alegia.

KA mezua argitzeko, momentuko hizketako hizkuntzan esamoldea arin ez bururatu eta konpentsatzeko beste hizkuntzakoa sartu edota hizkuntzaren baitako esamoldea bere horretan mantentzeko, alegia, hiztunaren sentimendu pertsonalak gertaerara ahalik eta gehien gerturatzeko erabiltzen da. Gainera, hizkuntza-aldaketa eginez hiztunek erabilera metaforikoa eta enfatikoa lortzen dute.

Badira urte batzuk Poplack-ek (1980) erakutsi zuela KA elebidunaren hizkuntza-gaitasunaren adierazgarri zela, hots, hizkuntza biak menperatzearen seinale, ez akatsa. Izan ere, KA ezin da nolana egin, eta bi erregela edo murriztapen ezarri zituen. Bata, *morfema askearena* (*the free morpheme constraint*), hots, hitzaren barnean, atzizki eta forma lexikoaren artean ezin dela kode-aldaketarik egin:

(1) **eat-iendo* “jaten”

Bestea, *baliokidearen murriztapena (the equivalente constraint)*, alegia, inplikaturako bi hizkuntzei dagokionean, aldaketaren bi aldeak gramatikalak izan behar dutela:

(2) *Tell Larry QUE SE CALLE LA BOCA* “Esan Larryri isiltzeko” [Poplack 1980: 587]

Hala ere, Licerás *et al.*-ek (2008: 831) KA kategoria funtzional eta lexikoen artean gerta daitekeela erakutsi dute, *morfema askearen* murriztapena baliogabetuz. Izan ere, MacSwan-ek (2000) elebidunak diren pertsonen hizkuntza gaitasuna bi osaera lexiko eta bi fonologikoz osatua dagoela dio, baina sistema konputazional bakarraz. Beraz, ikusita haur elebazarren hizketaldiko kasuan *go-ed* (joan-iragana) eta *sab-o* (jakin-1p, sg., orainaldia) modukoak arruntak direla, ume elebidunak bi hizkuntzetako lexikoak alternatzea onartuko du eta funtzional-lexiko alternantzia egingo du (Licerás *et al.* 2008: 832):

(3) a. *Ana quiere jump-AR*

Ana nahi salto + INF (Anak salto egin nahi du)

b. *Ana is salt-ING*

Ana dago salto + EZBURUTUA (Ana salto egiten ari da)

Beraz, Poplacken *morfema askearen* murriztapena ez diela hiztun guztiei eragiten dirudi. Nahasten diren bi hizkuntzetako gaitasun pragmatiko eta gramatikalaren araberakoa izango da egiten den KA eta, beraz, *morfema askearen* murriztapena hiztun batzuentzat bete beharreko murriztapena den bitartean, beste batzuek ez dute bete behar eta (3) bezalako perpausak onartuko dituzte.

KA, beraz, morfema barruan ere gerta daitekeela ikusi dugu, hots, hitz barruan. KA mota horretaz gain, beste mota hauek bereizten dira, zabalenetik zehatzenera: hizkideen artekoa izan daiteke, hizketa barruko esaldi artekoa, perpaus baten barruko osagai sintaktikoen artekoa, eta sintagma barrukoa zein jada aipaturako hitz barrukoa.

Lan honetan sintagma barruko KA aztertuko da eta (euskara-gaztelania) Determinatzaile Sintagma nahasi (DS)-ei erreparatuko zaie, batez ere hizketaldiko hizkuntza nagusia gaztelania denean euskarazko DS nahasiak txertatzeari. Izan ere, ni

Basaurikoa izanda eta jendartean gaztelania hizkuntza nagusia delarik, lagunek (D ereduan ikasitakoak denak) egiten dituzten DS nahasiak asko direla konturatuta nengoen eta DS nahasi horien konfigurazioa nola zehazten den jakiteko asmotan, lan hau egitea pentsatu nuen. Gainera, euskara-gaztelania alternatzea bereziki bitxia da, tipologikoki hizkuntza kontrajarriak direlako (Euskara eranslea da, atzizkiak ditu, SOV, buru-azkena eta ez du generoa markatzen; Gaztelania, SVO, buru-lehena eta generoa dauka). Hartara, gaztelaniako determinatzailea jartzean euskarazko izen batekin, determinatzaile horren generoa zerk zehazten duen auresangarria ez dirudenez, lan honi ekingo diot arrazoia bilatzeko xehearekin.

Lehenengo atalean, ingeles-gaztelania KAren gainean aztertutakoaren berri emango dut, eredu sortzaileari jarraituz, orokorrean KA perpausetan eta ondoren DS nahasietan arreta berezia jarrita. Bigarrenean, euskara eta gaztelaniaren kasura gerturatuko gara. 2.1. atalean, bi hizkuntzetako ezaugarri tipologiko nabarmenenak azalduko ditugu, batez ere DSei dagokienean. 2.2. atalean, euskara-gaztelania KAren berri emango dugu eta, batez ere buru parametroaren eragina ikusiko da. 2.3. atalean, DS nahasiak aztertuko dira eta ikerketa enpirikoetan jardundako ikertzaileen hipotesi eta berri emango da. 2.4. atalean, DS nahasien generoaren auzia aztertuko da eta 2.5.-en lan esperimentalerako aurreikuspenak emango dira. Hirugarrenean, lan esperimentalak. Licerias *et al.* (2012)¹ lana baliatuta, euskara-gaztelania KAri erreparatuz, zehazki DS nahasiei, galdeketa bera euskaratua egingo da. Ondoren, emaitzak, non aurreikuspenak bete diren ala ez ikusiko den. Laugarren atalak ikerketon ondorioak biltzen ditu.

1. Ingeles-gaztelania ukipenezko fenomenoak

1.1 Mailegatzea eta KA

Eredu sortzailearen barruan garatutako KAri buruzko lanetan, buruen portaerak eta euren osagarriak, bai eta kategoria lexiko eta funtzionalak, aztertzen dira.

Anderson & Toribiok (2007) ukipen linguistikoaren ondorioz Estatu Batuetako gaztelania-ingeles elebidunen lehentasunak aztertu dituzte, mailegutza eta KA fenomenoei erreparatuz. Bi hipotesi hauekin jokutzen dute. Bata, elebidunek sentiberatasun (onartze maila) desberdina erakuts dezaketela ukipenaren ondoriozko


¹ Eskerrak eman Juana M. Licerias-i, Ottawako Unibertsitateko ikertzaile eta irakasle denari, berak eginiko galdeketa lan honetarako erabiltzen uzteagatik.

fenomeno batzuen eta beste batzuen aurrean. Bestea, elebitasun motaren arabera, sentiberatasun (onartze maila) desberdina erakuts dezaketela.

Lehenengoari dagokionean, onarpen hierarkia bat ezarrita, gaztelania hutsezko hizketaldiak onarpen gehien duela ikusi da, eta mailegutza KA egitea baino nahiago dela. Mailegatze honetan, izen eta adjektiboek onarpen handiagoa izango dute, eta izenordainak eta juntagailuak zailenak izango dira. Normalean ez dira mailegatzen hiztegi arrunteko hitzak (*bed* edo *house*) baina esanahi zehatzagoa duten hitzetan, batzuetan konnotazio bereizgarria dutenetan, errazago mailegatuko da. Hau *Specificity Hypothesis*-en (apud Backus 2000:128) zehazten da, hots, mailegatzea zehaztasun semantikoaren arabera izango dela. Kontzeptu berriak izendatzeko beharrik, esaterako, Puerto Ricoko hizkeran ohikoak diren: *la boila* (“boiler” galdara); *el token* (“token” sinbola) *el bosso* (“boss” nagusia) modukoak esaten dituzte (Anderson & Toribio 2007: 219). Ordea, eguneroko izen arruntekin ez dute onargarria ikusten: *en la bed, a la house* (Anderson & Toribio 2007: 228).

Ukipenaren ondoriozko fenomenoaren artean onartze-maila desberdina dagoela argiago ikus daiteke grafiko honetan, onarpen maila handienetik txikienera (Anderson & Toribio 2007: 232):

1.grafikoa. Ukipen fenomenoaren onarpena




Bigarrena hipotesiari dagokionean, hots, onartze-maila norbanakoaren gaitasun linguistikoaren arabera dela, desberdintasunak antzeman dituzte ukipenezko ondoriozko fenomenoak balioztatzerako orduan. Atzerrira joandako gurasoen ondorengoaren eta H2 gaztelaniadunen artean eta elebidun orekatuen eta atzerrira joandako gurasoen ondorengoaren artean. Zenbat eta hobeto menderatu hizkuntza, testu

mota guztienganako eta KAren ganako jarrera positiboagoa antzeman da, KA esaldi barnean ere onartuz. (Anderson & Toribio 2007: 233). Hizkuntza gaitasun baxua dutenen artean KA ez dute ia onartzen eta KA esamoldeetan egingo dute batez ere, esaterako *sabes/you know; ¿verdad?/ right?* motakoetan (Anderson & Toribio 2007: 222). Hizkuntza gaitasun gutxi dutenek ez dute jakingo mailegatzaren diren hitzen artean bereizketarik egiten, eta alternantzia ez-gramatikalaren adibideak gramatikalak direnak baino hobeto balioztatuko dituzte. Ordea, gaztelania ondo menderatzen dutenek izen arrunten eta zehatzen arteko bereizketa eta alternantzia gramatikal eta ez gramatikalaren artekoa egingo dute (Anderson & Toribio 2007: 233). Horrela, Anderson & Toribiok (2007) prestatuturiko Txanogorritxu ipuinaren KAdun bi bertsioen artean, elebidunek alternantzia gramatikala duen testua eta ez-gramatikala duena bereizteko gaitasuna dute.

Ondorengo grafikoan kolore urdinak gaztelaniazko gaitasun altua duten parte-hartzaileen emaitzak adierazten ditu eta arrosak maila baxua dutenena. Zenbat eta gehiago menderatu gaztelania, eta, beraz, zenbat eta elebidunagoa izan, KA onargarriagoa dela ikus daiteke (Anderson & Toribio 2007: 233):

2. grafikoa. KA onarpena hizkuntza gaitasunaren arabera



Anderson & Toribio (2007) lanaren bidez ikusi dugu ingeles-gaztelania ukipenezko fenomenoetan elebidunak diren artean onartze maila desberdina dagoela ukipenezko fenomeno batzuekin beste batzuekin baino eta baita elebitasun mailaren arabera onarpen maila desberdina dagoela ere KArekiko.

1.2 Ingeles-gaztelania DS nahasietako generoaren auzia

KA egiten denean zergatik, esaterako, *el token?* Eta ez *la token?* Gaztelaniak genero komunztadura badauka ere, ingelesak ez, eta, beraz, ez du auresangarria ematen DS nahasi hauetan D gaztelaniako denean eta N ingelesa, zein genero komunztadurari emango zaion lehentasuna.

Liceras *et al.*-ek (2008) ingeles-gaztelania elebidun natibo eta ez-natiboen gramatikan zein genero komunztadurari ematen zaion lehentasuna aztertu dute. D ingelesez + N gaztelaniaz (*the casa*) edota D gaztelaniaz + N ingelesez (*la/el house*) aukeratzeko orduan, hizkuntza gaitasun mailak daukan eragina aztertu dute DS nahasietan kategoria funtzionala gaztelaniak ala ingelesak ematen duen ikusita. Gaztelania denean, determinatzaileko ea maskulinoa edo femeninoa aukeratzeko den ikusi nahi izan dute. Gainera, elebidun izan, gaztelania L1 izan edota gaztelania L2 izan bat bateko ekoizpenetan eta arau gramatikaletan mekanismo kognitiboek desberdin jokatzen dute (Liceras *et al.* 2008: 828).


Aldibereko hizketaldietan, jabetze prozesuan dauden elebidunak gaztelaniazko D nahiago dela ikusi da, zehazteko beharrik: *el king, la lady, los guards, el cake, una vela, los rockets, el sidewalk, el piggy, el otro birdy* (Liceras *et al.* 2008: 845-846). Hala ere, prozesu horretan oraindik maskulinoa eta femeninoa biak nahasten dituzte eta ez dago argi zein genero marka jarri. Ordea, urteekin badirudi maskulinoa izaten dela oinarritzeko forma (Liceras *et al.* 2008: 834).

(4) a. *El doorway (la entrada de la puerta, fem.)* [Jake *et al.*, 2002]

b. *El research (la investigación, fem.)*


c. *El vacuum (la aspiradora, fem.)*

Ingeles-gaztelania elebidunen DS nahasietan, esan bezala, aldibereko ekoizpenetan D gaztelaniazkoa izatea nahiago da. Izan ere, Chomsky-ri (2001) jarraituz, Morok (2001) erakutsi du Dren ezaugarriek dagokion N-rekin balioztatua izan behar dutela. Gaztelaniazko Dren balioztatu gabeko pertsona, numero eta genero ezaugarriak balioztatuak izan daitezke ingelesezko N-rekin, azken honek pertsona eta numeroaren azpimultzoaren tasunak bakarrik baititu:



La [pertsona, numeroa, generoa] *chair* [pertsona, numeroa] “aulki-a”


Ordea, D ingelesez bada eta izena gaztelaniaz, alternantzia ez da ona gaztelaniazko generoa ezin delako balioztatua izan ingelesezko Drekin, ingelesak ez baitu generorik:




The [pertsona, numeroa] *silla* [pertsona, numeroa, **generoa**] “aulki-a”

Halere, haur elebidunek *the silla* modukoak esaten dituzte eta natibo eta ez natiboek egoera esperimentaletan onartzen dituzte, lehenetsitako aukera ez bada ere.

Hartara, generoa eta genero komunztadura gaztelaniazko DStan bete behar da, generoa *n* ezaugarria delako eta genero komunztadura D ezaugarria *n-n* (7) (Liceras *et al.* 2008:835) baina ez ingelesezko DS kasuetan, *n*-rik ez baitago (8):




La [fem; (φ2)] *silla* [fem; (φ)]



The [] *chair* []

2 φ = Genero komunztadura

Ingeles-gaztelania KA kasuetan DS nahasiak posibleak izango direla ikusi dugu. Izan ere, D gaztelaniaz + N ingelesez denean, gaztelaniazko D-k egiaztatu gabeko N genero ezaugarriak eta genero komunztadura ezaugarriak izanagatik, ingelesezko N-k ez du ezein ezaugarri (Licerias *et al.* 2008: 837):

(9) a. <i>La</i> [fem.; (φ)]	<i>chair</i> []
b. <i>El</i> [mask.; (φ)]	<i>pencil</i> []
	

Horrenbestez, haur eta heldu elebidunetan KAdun DS onenak gaztelaniazko kategoria funtzionala dutenak izango dira. Gainera, *Grammatical Features Spell-out Hypothesis* (GFSH) (Licerias *et al.* 2005; Licerias *et al.* 2006b) oinarri hartuta, hots, haur elebidun baten KAdun perpaus batean bi hizkuntzetako gramatikak piztean, kategoria funtzionala “gramatikalago” duen hizkuntzak ezarriko duela adierazten duenez, gaztelaniazko D lehenestea zentzuzkoa da, ingelesa baino gramatikalagoa baita Dren ezaugarriari dagokienean, numeroa, kasua eta generoa zehazten baitu.

Hala ere, gaztelaniazko D baldin bada, bi aukera daude: D maskulinoa, oinarriko forma dela baitirudi, edota genero ezaugarria kontutan izatea, eta itzulpeneko baliokidearen generoa mantentzea.

D maskulinoa aukera estandarra dela esan ohi bada ere, Franceschinak (2001) erakutsi du natiboak ez diren eta ia natibo hiztunentzat hala dela baina natiboentzat, ordea, ez. Izan ere, D maskulinoa edota femeninoa erabiliko baititu ingelesezko izenekin (Licerias *et al.* 2008: 838).

Hortaz, bat bateko hizketaldietan, Licerias *et al.*-i (2008) jarraituz, GFSHK gobernatzen duenez, elebidunek D gaztelaniakoa izatea lehenesten dutela ikusi dugu.

Ordea, datu esperimentaletan, oro har D ingelesekoa izatea nahiago dute. Alabaina, L1 gaztelaniadunek ingeleseko D edo gaztelaniako D (baldin eta generoan bat egiten badu itzulpenekoarekin) aukeratzekotan, aldea nabaria da gaztelaniako Daren alde (Licerias *et al.* 2008: 843). Gaztelaniako natiboak ez direnak, baina, ingeleseko D nahiago dute. Izan ere, gaztelaniako natiboak ez direnentzat generoari dagokionean itzulpeneko generoarekin bat egitea ez da garrantzitsua, eta horregatik gaztelaniako D jartzean, maskulinoa jartzen dute. Badirudi gaztelaniazko Dren genero ezaugarria

antzemanezina dela natiboak ez direnentzat, are gehiago, genero zehaztugabearekiko (maskulinoa estandarra) sentsibilitatea dutela bakarrik (Liceras *et al.* 2008: 844).

Baina L1 gaztelaniadun hiztunek ere ingelesezko D nahiago dutela ikusi da, horrela ez baita arazorik sortzen sistema konputazionalan. Izan ere, genero komunztadura ez duten F-feature (ezaugarri) Determinatzaileek arazo gutxiago sortzen dizkiote sistema konputazionalari (Liceras *et al.* 2008: 846). Horregatik, L1 hiztunek nahiago dute ingelesezko D, ez baitu genero komunztaduraren F-feature-rik, komunztadura betetzen ez duen gaztelaniazko D baino. Baina genero komunztadura betetzen bada, argi erakusten dute gaztelaniazko D-arekiko lehenetsia L1 gaztelaniadunek. Halere, aipatu bezala, natiboak ez direnek D ingelesezkoa lehenetsiko dute eta bestela maskulinoa, sistema konputazionalari arazo gutxien ematen dizkiolako.

Ikerketa honek digu ingeles-gaztelania DS nahasietan, Generoaren adierazpidea desberdin islatzen dela elebidun izan, L1 gaztelaniaduna izan edota gaztelaniako natiboak ez direnen artean. Hori horrela izanik, gure gizartean euskara eta gaztelania ukipenean bizirik daudela, Generoaren adierazpide desberdina dagoela suposatzen dugu, hiztunen arabera hizkuntza hauekiko ukipena desberdina delako.

2. Euskara-gaztelania ukipenean

2.1. Euskara eta gaztelaniaren ezaugarriak

Euskal Herrian, euskara eta gaztelaniaren ukipen-egoera luzearen ondorioz, ohikoa da bi hizkuntzak hizketaldi berean alternatzen diren perpausak ekoiztea.

Hizkuntzari dagokionez, hizkuntza bi hauek hainbat ezaugarritan tipologikoki kontrajarriak dira. Euskara hizkuntza eranslea da eta atzizkiak ditu (10 a,c); sintaktikoki nahiko librea da baina orden kanonikoa SOV da (10d); sintagma mailan buru-azkena da eta izen eta izenondoaren artean numero komunztadura dago, numeroaren morfema sintagma osoari erantsirik, baina ez du generoa markatzen (10b). Gaztelania, ostera, sintaktikoki ere nahiko askea bada ere, buru-lehena da eta perpauseko orden kanonikoa SVO du. Azkenik, genero eta numero komunztadura dago izena eta izenondoaren artean.

(10) a. eusk. *katu-a*

gazt. *el gato*

b. eusk. *katu beltz-a*

gazt. *el gato negro/ la gata negra*

c.eusk. *etxe-ra-ko*

gazt. *para casa*

d. eusk. *Anek sagarra jan du*

gazt. *Ane ha comido la manzana*

Euskaraz DSak osagai bakar batean markatzen du bereizgarritasuna, numeroa eta kasua, azken elementu lexiko edo funtzionalari marka atzizki modura jarrita (12a,13a). Gaztelanian, berriz, determinatzaile sintagman numero eta kasu markak morfologia aldakorra duen elementu bakoitzeko flexioaren arabera da (determinatzaile, izen, izenondo, etab.) eta hauen artean halabeharrez komunztadura egon behar da (12b, 13b).

(12) a. *katu beltz-a*

b. *el gato negro*

(13) a. *katu beltz-a-k*

b. *gatos negros*

Ikusi bezala (12b, 13b), gaztelaniaz genero eta numero komunztadura dago izena eta izenondoaren artean. Euskaraz, ordea, ez dago generorik eta azken elementuari atxikitzen zaio determinatzailea, numero (eta kasu) tasunak daramatzana (12a, 13a). uskaraz numeroa eta kasua bezalako marka gramatikalak ez zaizkio I-ri txertatzen, sintagma osoari baizik, gaztelaniaz gertatzen denaren kontra (D-ari, I-ri, Adj-ari).

2.2. KA euskara-gaztelania

Euskara eta gaztelania tipologikoki kontrajarriak izanik, KA egiten duen elebidunak hartu beharreko erabakiak oso konplexuak dira. Izan ere, KAdun perpausetako hitz ordena baldintzatuko duen eragile garrantzitsu bat ezaugarri morfosintaktikoak dira. Hau ikusteko, Chan-en (2008) hipotesia euskara-gaztelania KA kasuetan testatu dute Ezeizabarrena & Munarriz-ek (2012).

Chanek (2008) buru funtzionalek KAdun perpausen ordena ezartzen dutela defendatzen du. Beraz, buruko hizkuntzak osagarrien propietate sintaktikoak ezartzen ditu, alegia, burua nolako hizkuntzakoa den, harek baldintzatuko du osagarri hauek ezkerrean edo eskuinean egotea. Katgoria funtzionalen kodetzeak parametrikoki buruen norabidea ezartzen du eta osagarriak sartu aurretik gertatzen da. Ordea, katgoria lexikoen kasuan osagarriaren ezarpena osagarriaren txertatze lexikoaren

ondokoa da. Izan ere, DS eta PS eta AS sintagma nahasiek desberdin jokatzen dutela ikusirik, kategoria lexiko eta funtzionalaren arteko banaketa dago.

Euskarak burua amaieran izanik eta gaztelaniak hasieran, euskararen kasuan burua eskuinean egongo da (14a) eta gaztelaniaren kasuan ezkerrean (14b):

(14) a. *piperr-a*

klase-ra

etorri dela

b. *el pimiento*

a clase

que ha venido

Horrela, KA perpausetan, kontutan izanik buru funtzionalek perpausaren ordena ezartzen dutela, hauek dira euskara-gaztelania KA perpausetan esperogarria dena, eta izartxoaren bidez espero ez dena Chanen (2008) hipotesiari jarraituz (Ezeizabarrena & Munarriz 2012: 3896).

1. taula. Sintagma nahasien aukera posibleak

BURU FUNTZIONALAK	Burua Gazt.+Osagarria Eus Gaztelania(burua hasieran)	Burua Eusk.+Osagarria Gazt. Euskara (burua amaieran)
P	a <i>ETXE</i> ³	*-ra <i>CASA</i>
	*etxe-A	etxe- <i>RA</i>
Konpl	que <i>ETORRI DA</i>	*-(e)la <i>HA VENIDO</i>
	*etorri da <i>QUE</i>	ha venido (E) <i>LA</i>
Flex	ha <i>ETORRI</i>	*da <i>VENIDO</i>
	*etorri <i>HA</i>	venido <i>DA</i>

³ Ezeizabarrenak jakinarazita, argitaratutakoan zuzendu beharreko huts bat zegoen eta lanean jartzen dudana “bertsio berria” da.

D	el ILAR	*-a GUISANTE
	*ilar EL	guisante-A
BURU LEXIKOAK		
Aditza	Comprar OGIA	Erosi PAN
	Ogia COMPRAR	Pan EROSI
Izena	Estudiante KIMIKAKO	Ikasle DE QUÍMICA
	Kimikako ESTUDIANTE	De química IKASLE
Adjuntu	Llena JANARIAZ	Betea DE COMIDA
	Janariaz LLENA	De comida BETETA

Taularen bidez, batetik, buru parametroari dagokionean buru lexikoak nahiko askeak diren bitartean, buru funtzionaletan buru parametroa ezin garrantzitsuagoa dela baieztatu daiteke. Izan ere, esaterako DS nahasietan, **ilar EL* eta **-a GUISANTE* ez dira onargarriak ez dutelako betetzen buru parametroa eta, ordea, *el ILAR* eta *guisante-A* onargarriak dira, parametroa betetzen dutelako. Gainera, euskarazko funtzio elementu askoren morfema itsatsi izaerak ere eragina izan dezake buru parametroaren garrantzian.

2.3. Euskara-gaztelania DS nahasiak

Buru parametroaren arabera hurrenkera erakusten dutenen artean, D burua gaztelaniazkoa denean euskarazko osagarria eskuinetara doa (15) eta D euskarazkoa denean, osagarria ezkerrean (16). Bi D duen DS kasuren bat ere ikusi dute (17) (Ezeizabarrena & Munarriz 2012: 3899):

(15) a. las CHALAs

b. por el GUZURRE

c. Mira, a las ANDERENOs y los MAIXUs

(16) a. KABALLU-ek

b. zelan itten dabe PAJARITOk?

(17) a. un IPOTX-A

Hala ere, maiz KA DS goragoko mailan ikus daiteke, DS osoa (18) beste hizkuntzakoa hartzen denean, esaterako:

(18) a. ez, ez, ez. Uii forja, lo LA FORJA oso gogorra da

b. Etaa da UNA ASIGNATURA PENDIENTE

Beraz, KA kasuetan batzuetan hizketaldiko hizkuntza ez denaren DS (edo PS) adjuntu edota osagarri gisa islatzen da. Hauen artean, DStan KA gehien egiten dela dirudi, buru hizkuntza gaztelania izan eta osagarria euskaraz, zein buru hizkuntza euskara izan eta osagarria gaztelaniaz. Azkenik, buruko hizkuntzaren arabera osagarria buru funtzionalaren ezkerrean edo eskuinean agertuko da. Kategoria lexikoetan AS da sintagma ohikoena, baina osagarriaren kokalekua ez da kategoria funtzionaletakoa bezain zorrotza, Chanen (2008) buru lexiko eta funtzionalen arteko banaketa baieztatuz (Ezeizabarrena & Munarriz 2012: 3901).

2.4. DS nahasietako generoaren auzia

Euskara-gaztelania sintagma nahasi hauetan, halere, argitu gabeko kontu bat dugu. Gaztelaniak, esan bezala, kasua eta generoa ditu eta DS baten barruko izenak, determinatzaileak eta adjektiboak bat etorri ohi dira tasun honi dagokionean (baita pluralean ere); euskaraz, ordea, ez dago genero morfologiko markarik, ez determinatzaile, ez izenondo, ez izenetan, ez eta dago genero (ez beste tasunei dagokienean ere) komuntadurarik DS barruan. Euskal DSren barruan, ez dago komuntadurarik izenaren, izenondoaren eta determinatzailearen artean, plurala eta kasua bezalako markak DSren marka bakarra legez agertu ohi baitira, azken osagaiaren atzizki legez, baina behin bakarrik markatuta DS osoan.

Beraz, KAdun perpausak egiterakoan, DS nahasietan euskarazko izena hartzean nola erabakiko dugu gaztelaniazko determinatzailearen generoa? Gainera, gaztelania buru lehena eta euskara buru azkena izanda, D (eta baita kasua ere) leku kontrajarrian agertzen dira hizkuntza bietan. Hortaz, DS nahasietan nola gauzatuko da D? Ez du ematen auresangarria denik eta KAdun perpausetako ezaugarri morfosintaktikoek joera zein den erakutsi dezakete.

Gaztelaniaz, generoa markatzeko determinatzaileak *el* eta *la* dira (*lo* neutroa) eta izen eta izenondoetan *-o* eta *-a* markak dira oro har. Halere, *-o* amaieradun hitz gehienak

maskulinoak badira ere, hitz femeninoetan ere ager daiteke, hala nola *moto* “motorra - FEM”, *foto* “argazkia - FEM” nahiz eta berez luzeagoak ziren zenbait hitzetatik eratorriak izan, *motocicleta* eta *fotografía*. Femeninoa diruditen hitzetan ere antzera gerta daiteke, -a amaiera femeninoa izan eta hitz maskulinoa izatea, hala nola, *idioma* “hizkuntza-MASK”, *puma* “puma – MASK”. Are gehiago, hitz batzuetan amaiera femeninoa izanik, maskulinoa zein femeninoa ere izan daitezke, hala nola *el Belga/ la Belga* “Belgikarra” (Parafita *et al.* 2015).

Euskara, genero gabeko hizkuntza den arren, hizkuntza erromantzeekin izan duen kontaktu luzearen ondorioz seguruenik, generoa bereizten duten hitzak daude, eta euskalki batzuetan besteetan baino ohikoagoa dela ere esan daiteke. Adibidez, Lekeitioko hizkeran, izen eta izenondo batzuetan bereizketa egiten da: *majo/maja*, *alto/alta*, *tonto/tonta*, *gixajo/gixaja*, *ingeles/ingeleza*. Baita deklinatuta ere: *majua/majia*, *altua/altia*, etab. Eta izenondoetatik eratorritako aditz batzuetan ere genero bereizketa mantentzen da: *majotu/majatu*.

DS osoa hizkuntza batekoa txertatzen denean KA goragoko mailan egin da, perpauseko hizkuntza euskara delarik gaztelaniazko DS txertatzea (19) zein gaztelania denean hizkuntza nagusia, euskarazkoa txertatzea (20). Gaztelaniako N soila txertatzea ere gerta daiteke (21):

- | | |
|--|-------------------------------|
| (19) a. mutil hori <i>el estudiante</i> da | [Etxebarria (2003:141)] |
| b. faltatzen zait, bai, <i>el tochito de los apuntes</i> | [Ibarra (2011)] |
| c. niri gustatzen zaizkit <i>los enrolladitos</i> | |
| d. zer dio <i>el vikingo?</i> (haurra) | [Epelde <i>et al.</i> (2013)] |
| (20) a. que... si <i>barne araudia</i> | [Ibarra (2011)] |
| (21) a. orduan zen <i>Fiesta Vasca...</i> | [Etxebarria (2003:141)] |
| b. hori ez da <i>higiene</i> , zikinkeria da | |
| c. Etxe honetan <i>pedida de mano</i> izan zen | |
| d. <i>Trato desconsiderado con el público</i> edo horrelako kexak gehien bat | |
| e. Bai, baina Zarautz <i>reina de las playas</i> izan zen Euskadin | |

f. *badauka papel*

[Ezeizabarrena (2014)]

DS barruko mailakoak lau azpiataletan bereizten dira: D gaztelaniakoa + N euskaraz (22); N gaztelaniaz + D euskaraz (23); eta gaztelaniako D + DS euskarazkoa (24):

(22) a. se me ha olvidado *el beroki*

[Ibarra 2011]

(23) a. Ze... nik badakit hauek ez dizutela atera behar *navaja bat*

b. *chorradita bat*

d. *mosca bat*

[Ezeizabarrena 2014]

(24) a. *una makilla*

b. primero *las buruketas*

[Ibarra 2011]

c. pasa por *el estegorria* y ahí se forma *la aya*, en *el urdaila*

d. lo que le sale peor son *las zatiketas*

e. yo ya he hecho *las etxekolanas*

f. Jon hizo *las marrazkias*

[apud Deuchar *et al.* 2010]

Adibideotan ikus daiteke perpaus nagusia euskara denean DS osoa gaztelaniazkoa sartzea ohikoa dela (19) baina baita N soila txertatzea ere (21). Ordea, perpaus nagusia gaztelania denean euskarazko DS osoa txertatzea gutxiagotan egiten da (20). Horrez gain, perpaus nagusia gaztelaniazkoa denean, Ibarren (2011) lanak erakusten digu gazteek batik bat gaztelaniako D + DS euskaraz (24) egiten dutela, eta gutxiagotan D gaztelaniakoa eta N euskaraz, euskarazko Da txertatu gabe (22).

DS nahasietan, D gaztelania + N euskaraz denean, Daren generoa zein izango den ez dakigu zerk zehazten duen. Alabaina, Parafita *et al.*-ek (2015: 5) berriki erakutsi dute gaztelaniazko D femeninoa nabarmen maskulinoa baino gehiago ageri dela, itzulpenean femeninoa denean baina baita batzuetan maskulinoa denean ere. Aldibereko hizketaldietan heldu elebidunei honelako adibideak entzun dakieke (apud Deuchar *et al.* 2010):

(25) a. la *idazlan*-a (*la redacción*, FEM)

b. la *piperr-a* (*el pimiento*, MASK)

(26) a. la *izerdi-a* (*el sudor*, MASK)

b. la *pitxi-a* (*la joya*, FEM)

(27) a. el *txano* (*el gorro*, MASK)

b. los *kulero-s* (*las bragas*, FEM-PL)

(28) a. el *ipurdi* (*el trasero*, MASK)

b. los *liburu-s* (*los libros*, MASK-PL)

Determinatzaile femeninoa dago kontsonantez (25) zein bokalez (26) amaituriko izenetan. Maskulinoa *-a* amaiera ez duten guztietan (27,28). Fonologikoki euskarazko *-a* atzizkia gaztelaniazko genero femeninoaren (*-a*) marka berbera da. Antzera, *-o-z* amaitzen diren euskal izen guztiak gaztelaniazko determinatzaile maskulinoa dute (28).

Ondorioz, badirudi itzulpeneko generoari edota hitzaren amaiera fonologikoari begiratzen zaiola eta hitzun elebidunen kasuan, kasu femeninoa estandarra dela. Izan ere, Parafita *et al.*-i (2015: 5) jarraituz, heldu elebidunen bat-bateko ekoizpenetik femeninoa lehenesten dela baliokidea femeninoa denean baina baita maskulinoa denean ere, eta, ordea, maskulinoa soilik baliokidea maskulinoa denean erabiltzen dela ondorioztatu dute. Beraz, femeninoa lehenestea generoa eta amaiera fonologikoa bat ez datozenean ere, femeninoa oinarritzko forma dela euskara-gaztelania DS nahasietan ondorioztatzera garamatza (Munarriz & Parafita, 2014: 65). Horrekin batera, Deuchar *et al.*-ek (2010) adierazi bezala, euskarazko determinatzailea femeninoaren marka bezala berrinterpretatua egon daiteke (Munarriz & Parafita, 2014: 61).

2.5. Aurreikuspenak

Generoari dagokionean, gaztelania euskara baino gramatikalagoa da Dren ezaugarriei dagokienean, numeroa, kasua eta generoa zehazten baitu eta GFSHri jarraituz (Liceras *et al.* 2008), DS nahasietan kategoria funtzionala gaztelaniak ematea lehenetsia egotea espero da, baldin eta itzulpeneko generoa mantentzen bada. Bestela, Liceras *et al.*-ek (2008) diotenari jarraituz, D euskarazkoa nahiagoko da ez baitu genero komuntaduraren ezaugarririk. Baina genero komuntadura betetzen bada, gaztelaniazko Darekiko lehentasuna erakutsiko dute L1 gaztelaniadunek, genero

ezaugarria antzematen dutelako. Hau da, esaterako, *la aulki* DS nahasi onargarriena litzateke, itzulpeneko generoa gorde duelako eta D gaztelaniakoa delako, gramatikalena, alegia. Ordea, *el aulki* onartu aurretik nahiagoko da D euskarazkoa N gaztelaniadunarekin, *silla-(a)*, ez baitu genero komunztaduraren ezaugarriarik.

Parafita *et al.* (2015) lanean ikusi dugu gaztelaniazko D femeninoa maskulinoa baino gehiago agertzen dela euskara-gaztelania KAn, itzulpeneko baliokidea denean baina baita *-a* euskarazko determinatzailearen atzizkia delako eta gaztelaniazko genero femeninoaren marka delako ere. Hartara, femeninoa oinarrizko forma dela uste dute. Hipotesi honi jarraituz, bi Dko perpaus batean, amaiera fonologikoari begiratuko zaio. Hau da, *en el edalontzi* hobetsiko dute, itzulpeneko baliokidea maskulinoa delako eta *-a* amaiera fonologikoa ez duelako. Osera, *en la edalontzia* hobetsiko dela pentsatzekoa da, amaiera fonologikoari begiratzen badiogu, *-a*. Liceras *et al.* (2008) jarraituz, *en el edalontzi(a)* beharko luke, genero ezaugarria daukalako elebidunak.

D bi jartzearen arrazoi nagusia, nire ustez, euskarazko izena determinatzailearekin batera, osorik bat bailitzan bezala antzematea da. Beraz, euskara batez ere eskolako hizkuntza den horietan D bi egotea espero da, Ibarrak (2011) Nafarroako gazteetan topatutako adibideetan bezalaxe. Ordea, euskara zenbat eta gehiago erabili edota zenbat eta gehiago menderatu, D bakarra jartzea lehenetsiko dela auresangarria dirudi, euskarazko izena D gabekoa ikusiko baitute.

Horrekin batera, Anderson & Toribiok (2007) ukipen fenomenoaren artean erakutsi onarpen maila desberdina gure adibideotan ere antzemango dela uste dugu eta KAri erreparatuz, DS nahasiaren artean gramatikalak direnak ez direnak baino onargarriagoak izango dira. Mailegatzerako azaldu *Specificity Hypothesis* delakoa (apud Backus 2000), DS nahasietan ere beteko dela auresuposatzen dugu. Beraz, *aulki* izen arrunta izanik, ez da erraz onartuko, esaterako, *el aulki/la aulkia*. Ordea, *marigorringo* hitzarekin, adibidez, DS nahasiak onarpen-maila altuagoa izango du ez delako eguneroko hitza.

DS nahasietako determinatzailean perpaus nagusiko hizkuntza mantenduko dela uste dut. Chanen (2008) hipotesiari jarraituz, buru funtzionalek perpausaren ordena ezartzen dutelako eta buruko hizkuntzak osagarriak ezker edo eskuin egotea baldintzatzen duelako. Beraz, *vestido-a nahiago dut, el vestido nahiago dut* baino hobetsiko da.

Azkenik, DS oso edo DS barneko KAren artean, DS barnekoa maizago egingo dela uste dut. Izan ere, DS nahasiak egiterakoan perpaus nagusiko hizkuntzaren buru funtzionala ez da aldatzen, eta, beraz, hitz ordena ere ez. Hala ere, ondoren egingo den galdeketan hau ez da testatu Licerás *et al.*-en galdeketaren bertsioa ahalik eta zurrunen mantenduko delako eta beronek DS nahasiak aztertu dituelako.

Beraz, aurreikuspenak labur jarrita:

1. DS nahasietan kategoria funtzionala gaztelaniak emango du itzulpeneko izenaren generoa mantentzen bada. Bestela, D euskarazkoa lehenetsiko da (Licerás *et al.* 2008).
2. Amaiera fonologikoak aginduko du. *-a* euskarazko determinatzailearen atzizkia dagoenean femeninoa lehenetsiko da, itzulpeneko baliokidea maskulinoa bada ere, eta *-a*-rik ez badago D maskulinoa (Parafita *et al.* 2015).
3. Bi D jartzen dira euskarazko izena Darekin batera izen osoa bezala hartzen delako. Beraz, euskara gehiago erabiltzen dutenek bi Ddun DS nahasia gutxiago jarriko dute.
4. DS nahasietan *Specify Hypothesis* delakoa beteko da.
5. DS nahasietako determinatzailean perpaus nagusiko hizkuntza mantenduko da.

3. Lan esperimentalak

Licerás *et al.*-en (2012) bertsio euskaratua egingo dut, euskara-gaztelania DS nahasietan nolako lehentasunak dauden ikusteko asmoz eta aurretik aipatutako aurreikuspenekin bat egiten duten ala ez ikusteko.

Batetik, perpaus nagusiko hizkuntza euskara denean, DS nahasia (gaztelaniazko N + euskarazko D) egiteak duen onarpenaren neurria ikusi nahi da. Bestetik, perpaus nagusiko hizkuntza gaztelania denean, DS nahasia (D gaztelaniazkoa + euskarazko D (+gaztelaniazko D)) egiteak duen onarpena eta gaztelaniazko Da jartzean zein genero hautatzen den eta arrazoia ikusi nahi da, euskarak generorik ez duela jakinik.

3.1. Licerás *et al.*-en bertsio euskaratua

Liceras *et al.*-en bertsio originaleko galdeketari dagokionean, galdeketa 38 itemek osatzen dute. 8 beroketakoak dira, 24 esperimentalak eta 6 arreta desbideratzaileak. Item esperimentaletan, 12tan perpausetako hizkuntza nagusia ingelesa da, eta ingelesezko D + gaztelaniazko N adibideak dira; beste 12 perpausetako hizkuntza nagusia gaztelania da, eta gaztelaniazko D eta ingelesezko N DS nahasiak daude. Arreta desbideratzaile itemetan, hiru perpausetan sujetu-predikatu arteko KA egin da: ingelesezko sujetua - predikatua gaztelaniaz eta bi gaztelaniazko sujetu - predikatua ingelesez. Beste 3 perpaus oso daude, bat osoa gaztelaniaz eta beste biak osorik ingelesez.

Item esperimentalak ikerketarako balio nagusia dutenak izanik, ondorengo lerroetan hauek azalduko ditugu:

Ingelesezko D + gaztelaniazko N motako DS nahasietan, gaztelaniazko izenaren generoari dagokionez, seik genero maskulinoa dute eta seik femeninoa. Maskulinoei begiratuta, *-o* bokalez amaitzen diren 4ak (*vestido, cielo, verano, suelo*) eta *-e* bokalez amaitutako 2 (*punte, bosque*). Femeninoak, *-a* bokalez amaitutako 4ak (*comida, revista, lluvia, ducha*), *-e* bokalez amaitutako bat (*nieve*) eta *-n* kontsonantez amaitutako bat (*canción*).

12 hauetatik 8 postposizio sintagmak direla aipatzea garrantzitsua da, izan ere euskara-gaztelania KAn euskaraz postposizioak amaieran txertatzen direnez, DS nahasi hauen amaieran postposizioa txertatuko delako eta agian eragina izan dezakeelako parte-hartzaileen erantzunetan.

Liceras *et al.*-en galdeketaren bertsio euskaratuan, gaztelaniazko izenak berdin mantenduko ditut, salbu eta *revista* eta *ducha* izenetan, euskaraz izen berak erabiltzen baitira. Ahalik eta aldaketa gutxien egiteko, irudi berak baliatuz KA mota bera testatu ahal izateko asmoan, *-a* amaiera, genero femeninoa eta silaba kopurua mantenduz, *página* eta *agua* jarriko dut.

D-ari dagokionean, bertsio originaleko ingelesezko *the* Da, euskarazko *-a* D-az aldatuko da. Hartara, N + euskarazko D motako DS nahasiak izango dira, postposizioarekin zein gabe, ereduari jarraituz: *the vestido* > *vestidoa*, *the canción* > *canciona*, eta postposizioekin: *in the puente* > *puntean*, *in the verano* > *veranoan*, *in the cielo* > *cieloan*, *with the nieve* > *nievearekin*, *to the suelo* > *sueloara* eta *in the bosque* > *bosquean*.

Gaztelaniazko izenek *-a* amaiera duten 4 kasuetan ez da aukerarik ikusiko, *-a* horrek euskarazko determinatzaile mugatuarekin bat egiten duelako (euskalki batzuek salbu, non $a+a > -ea$ duten). Beraz, *-a* amaiera duten lau izen horietan, bi DS eta bi PS, gaztelaniazko hitza bere horretan mantenduko da, parte-hartzaileak gaztelaniazko *-a* amaiera fonologikoa euskarazko determinatzailetzat hartuko duelakoan: *the comida > comida*, *the revista > página*, *in the lluvia > luvian* eta *in the ducha > aguan*.

Adibideetatik *sueloara* gutxien onartuko dela pentsatzekoa da eta horrek euskal gramatikak agintzen duela iradokiko luke, adlatibo postposizioak ez baitu determinatzailerik hartzen euskaraz, eta, beraz, *suelo-ra* onargarriagoa izango litzatekeela uste da. Onarpen handiena zeinek izango duen ikusteko dago.

Halere, aldibereko ekoizpeneko adibideak ikusita pentsatzekoa da, DS (D maskulinoa) + euskarazko D (*el canción*) edota DS (D femeninoa) + euskarazko D (*la canción*) modukoak ere ekoizten direla eta hau aztertzeke dago.

Bertsio originaleko gaztelaniazko D + ingelesezko N motako DS nahasiei dagokienez, gaztelaniazko D-en artean seik genero maskulinoa dute eta seik femeninoa. Horietako seik itzulpeneko generoa gordetzen dute (*el glass*, *el plane*, *el sun*, *la house*, *la door*, *la chair*) eta beste seik ez (*el face*, *el hand*, *el window*, *la clock*, *la tree*).

Bertsio euskaraturako gaztelaniazko D mantendu da baina N ingelesezkoa euskarazko hitzarengatik ordezkatu da. Ordezkaturako hitzetan interesgarriak izan daitezkeen amaiera fonologikoak jarri dira, *-e*, *-i*, *-o*, *-u* bokalak eta *-n* eta *-tz* kontsonanteak (*erloju*, *esku*, *aurpegi*, *baso*⁴, *aulki*, *eguzki*, *etxe*, *ate*, *leiho*, *hegazkin*, *bihotz*, *zuhaitz*), horrek eragina izan dezakeelakoan baikaude.

Bertsio originaleko ingeles-gaztelania DS nahasietan bi aukera dauden bitartean perpaus nagusiko hizkuntza gaztelania denean: *la clock* edo *el clock*, esaterako, euskaraturakoan aukerak bikoiztu egiten dira. D maskulinoa + N euskaraz (*el eguzki*) eta D femeninoa + N gaztelaniaz (*la eguzki*) gain, determinatzailea leku kontrajarrietan

⁴ Euskaraz hitz hobetsia *edalontzi* bada ere, *-i* amaiera fonologikoa ez denez maskulinoarekin bete betean lotzen, *baso* jartzea pentsatu da *-o* amaiera fonologikoa duelako eta euskaraz ere erabilia delako. *Basoa* adibidean azentuaren arabera emaitza desberdinak jasoko direla pentsatzekoa da, *básoa* izan edo *basóa* izan.

egoteagatik, bi D-rekin, gaztelaniakoa eta euskarakoa: D maskulinoa + DS euskaraz (*el eguzkia*) eta D femeninoa + DS euskaraz (*la eguzkia*).

Lau aukera horien artean aurreikuspenak betetzen diren ala ez ikusteko, eta, beraz, joera zein den jakiteko, *el/la* genero bereizketa ez ezik, bi D txertatuko dira adibide erdietan, 6tan, eta beste seiengan D bakarra. Izan ere, genero alternantzia hori euskarazko D jarri/ez jarri alternantzian antzeman daitekeela uste dugu. Hau da, *el* egongo dela itzulpeneko hitza maskulinoa denean eta batez ere amaiera fonologikoa *-a* ez denean; eta *la* euskarazko D (*-a*) txertatzen zaionean eta itzulpeneko baliokidea denean.

12 hauen artean 5 DSak dira (*el aurpegi, el eguzki, la aulki, la bihotza, la atea*) eta 7 PS dira eta hala mantenduko da (*por el leiho, en el esku, en el hegazkin, junto a la etxe, en la zuhaitz, con la erloju, en el basoa*).

Interesgarria izango litzateke DStik haratagoko KA aztertzea, DS nahasiak edota DS haratagoko KAren artean lehentasuna zeini ematen zaion ikusteko. Horretarako, N soila (*eguzki*) eta DS euskarakoa osorik txertatzea (*eguzkia*) frogatu beharko litzateke baina oraingo honetan Liceras *et al.*-en bertsiolari ahalik eta fidelkien jarraituko diogu.

Genero maskulinoa duten izenen artean, *el eguzki* eta *en el hegazkin* onartuenak izango direla uste da, ez dutelako *-a* amaiera fonologikoa eta itzulpeneko baliokidea dutelako. *El aurpegi, por el leiho* edota *en el basoa* adibideen artean ikusi ahalko da amaiera fonologikoak edota itzulpeneko baliokideak duen indar gehien.

Genero femeninoa dutenen artean, *la atea* hobetsiena izango dela uste dugu, *-a* amaiera + itzulpeneko baliokidea delako. *En la zuhaitz* eta *con la erloju* gutxien, ez dutelako *-a* amaiera fonologikoa eta ez direlako itzulpenaren baliokide. *La aulki* eta *junto a la etxe* adibideek itzulpeneko generoa mantentzen dute baina ez dute *-a* amaiera. *La bihotza*, oster, *-a* amaiera fonologikoa du baina itzulpeneko “corazón” maskulinoa da. Beraz, hauetan ikusi ahalko da amaierak ala itzulpenak daukan indar gehiago.

Horiez gain, 6 bestelako adibide daude, galdeketa ere berdin mantenduko direnak, arreta desbideratzeko baliagarriak baitira.

Laburtuz:

ITEM PRAKTIKOAK	ITEM ESPERIMENTALAK	ARRETA DESBIDERATZAILEAK	GUZTIRA
8	24	6	38

- **Datu praktikoak** : KA hainbat gramatika mailatan daukaten egiturak.

- (1a) LA JIRAFÁ ESTÁ zuhaitzen ondoan ADITZ KOPULATIBOA+ PostS X2
[jirafa zuhaitzen ondoan dago]
- (1b) ESTO ES UN txakurrO HITZ BARRUKO ALTERNANTZIA X2
[Hau txakur-GAZT. MASK bat da]
- (1c) Umeak jolastaNDO daude A_{AUX} + A_{LEX} X2
[Umeak jolasten ari dira] jumpando
- (1d) Untxiak ZANAHORIA handi bat dauka OZ = N – ADJ + DET X2
[untxiak azenario handi bat dauka]

- **Datu esperimentalak**: 12 GAZTE. D + EUS N; 12 GAZTE N + EUS. D.

- (2a) LA LECHE ESTÁ EN el basoa GAZT. MASK BAT ETORRI DET X3
[esnea edalontzi_{GAZT. mask} a_{mask} n dago]
- (2b) EL PÁJARO ESTÁ EN EL esku GAZT. MASK BAT ETORRI EZ DET X3
[txori hau esku_{GAZT. fem} a_{mask} n dago]
- (2c) EL NIÑO ESTÁ ABRIENDO LA atea GAZT. FEM BAT ETORRI DET X3
[Umea ate_{GAZT. fem} a_{fem} irekitzen ari da]
- (2d) EL NIÑO ESTÁ JUGANDO CON LA erloju GAZT. FEM BAT ETORRI EZ DET X3
[Umea erloju_{GAZT. mask} a_{fem} rekin jolasten ari da]
- (2e) Gizona SUELOara erortzen ari da GAZT. MASK N – EUS. DET X6
[gizona lurr_{GAZT. mask} era erortzen ari da]
- (2f) NIEVEarekin jolasten ari dira GAZT. FEM N – EUS. DET X6
[Elurra_{GAZT. fem} rekin jolasten ari dira]

- **Arreta desbideratzeko: 3 KA beste gramatika maila batean (3a)+ 3 KA gabeak (3b).**

- (3a) EL MONO banana bat dauka
[tximinoak banana bat dauka]
- (3b) Hau bizikleta pirata bat da

3.1.1. Metodologia eta laginen tipologia

Galdetegia egiterako orduan, prozedura honako hau izan da:

- Argi utzi galdera ez dela ea perpausak gramatikal/ez-gramatikal diren, baizik eta egoera informal batean erantzunek belarrira nola jotzen dieten.
- Perpausak balioztatzeko, Licerás *et al.*-ek erabilitako taula bertsua erabiliko da (*ikus 3.eranskina*) eta lau aukera hauen artean bat aukeratu beharko dute:



- Galdeketa powerpoint baten bidez egingo da, Licerás *et al.*-ek erabilitakoa euskaratua. Hasierako 8 diapositibak ez dituzte balioztatu behar eta galderak egin ditzakete bitartean (*ikus 1. eranskina*). Ondoren fitxa bat emango zaie eta galderarik egin gabe 30 esaldiak balioztatuko dituzte aurreko marrazkien bitartez (*ikus 2. eranskina*).
- Lagin guztiei galdeketa egun berean egingo dago.

Galdetegia osatu duten parte-hartzaileen tipologia honako hau izan da: guztira 12 pertsonak parte hartu dute, 11 neskek eta mutil 1ek. Denak 21-25 urte bitarteko unibertsitateko ikasleak dira. Denak D ereduan eskolatuak izan dira baina euren lehen hizkuntza gaztelania da. Elebidun “orekatuak” dira, bi hizkuntzetan gaitasun maila altua baitute, nahiz eta gaztelaniaz hitz egitean erosoago sentitzen diren.


3.1.2. Emaitzak

Gaztelaniazko N + euskarazko D motako DS nahasietan, 1. grafikokoari bagagozkio, oro har, onarpen nahiko altua izan dute DS nahasiek. Onarpen maila altuena *puentean* (%66,67) adibideak izan du, *bosquean* eta *vestidoa* (58,34) adibideek jarraitzen diotela. %50ak ere *página* adibidea ontzat eman dute. Okerren *aguan* (%100) eta *canciona* (%91,67), oso txarto edo txarto balioztatu baitituzte gehienek. Horiei gehitzen badizkiegu nahiko txarto balioztatu dituztenak, *sueloara*, *veranoan*, *nievearekin* eta *comida* gailentzen dira. *Sueloara* aurreikuspenetan gutxien onartuko zela ustearen aurka, inork oso ondo ez badu balioztatu ere, nahiko ondo balioztatu duenik bada, %33,33ak. Hala ere, hemen duda egon daiteke ea *sueloara* edo *suelora* irakurri duten,

askotan nahi gabe autozuzentzen ditugulako esaldiak. PS izan edo DS izan, eraginik ez duela dirudi.


Grafikoetan item nahasi motak ikus daitezke horizontalean, koloreek zutabeka item bakoitzeko parte-hartzaileen balorazioa adierazten dute eta bertikalean ezkerreko puntuaketak, %100etik itemek lortu duten balorazioa.

1. grafikoa. *N* gaztelania + *D* euskara



Gaztelaniazko D + euskarazko N motako DS nahasietan, bi talde bereizi dira, batetik D maskulinoa dutenena eta, bestetik, D femeninoa dutenena. Bakoitzaren azpimultzo bezala, D itzulpeneko baliokidea mantentzen dutenak batetik, eta D itzulpeneko baliokidea ez dutenak bestetik. Atalka emaitzak ateratzen hasi aurretik, 12 DS eta PS nahasien ikuspegi oso bat ikus daiteke 2. grafiko honetan.

2. grafikoa. *D* gaztelania + *N* euskaraz




Oro har, mota bateko eta bestekoaren artean aldea txikia dela ikus daiteke. Gaztelaniazko D + euskarazko N motakoetan %41,67 onarpen maila egon da eta gaztelaniazko N + euskarazko Dan %36,80. Baina oso ondo balioztatu dituztenak bakarrik alderatuz gero, aldea handitzen da. Gaztelaniazko D + euskarazko N motakoetan %17,60 den bitartean, gaztelaniazko N + euskarazko Dan %8,33.

Laginen tipologia ikusita, perpaus nagusiko hizkuntza gaztelania deneko DS nahasiak gehiago onartzea espero izatekoa da, 5. aurreikuspenarekin bat eginez. Izan ere, laginen eguneroko hizkuntza gaztelania da baina euskaraz ikasten dutenez, euskarazko izen asko txertatzen dituzte eurek ere eguneroko hizketaldietan. Hala, gertuago dituzten adibideak izan direla 2.grafikokoak pentsa daiteke eta horregatik zenbait adibidek onarpen maila altua izatea.

Baina goazen 2. grafikoko emaitzak atalka aztertzeraz, hauetan generoaren hautapena egiten baita eta aurreikuspenak bete diren ala ez ikusteko baliagarria izan daitezkeelako.

D maskulinoa dutenen artean, itzulpeneko generoa mantentzen denean, onarpen handiena, 1. aurreikuspenarekin bat eginez, *el eguzki* DS nahasia izan da, %91,67. *En el hegazkin* PS-k onarpen maila txikiagoa izan du. Onarpen gutxien izan duena *en el basoa* izan da, 2. aurreikuspenarekin bat eginez. Ikus 3. grafikoa.

3. grafikoa. D mask/itzulpen baliokidea + N euskeraz




D maskulinoa duten kasuetan baina itzulpeneko baliokidea mantentzen ez denean, onarpen maila jeisten dela antzeman daiteke. 3. grafikoan onarpen maila % 52,78

izatetik, 4. grafiko honetara, %38,89. Onarpen handiena *el aurpegi* (%50) DS nahasiak izan du, ondoren *por el leiho* eta *gero en el esku*. Amaiera fonologikoak itzulpeneko baliokideak baino indar gutxiago duela ondoriozta daiteke, 3. grafikokoak baino onarpen baxuagoa izan dutelako eta bien arteko aldea itzulpeneko baliokidearen generoa mantendu ala ez mantentzeagatik bereizten baitira.

Amaiera fonologikoak uste baino indar gutxiago duela pentsatzekoa da, 2. aurreikuspenarekin bat ez eginez. Izan ere, hiru adibideotako amaiera ez da *-a* eta are gehiago, *por el leiho* adibidean, *-o* amaiera izanda *el* determinatzailearekin onarpen maila altua izatea espero izatekoa zen, eta, ordea, %41,67ak oso txarto balioztatu du eta %16,67ak nahiko txarto. Ikus 4. grafikoa.


4. grafikoa. D mask/itzulpen baliokidea EZ + N euskaraz



D femeninoa dutenen artean, itzulpeneko baliokidea gordetzen dutenetan, %52,78ko onarpena izan dute, 3. grafikoko emaitza berdina. *La atea* eta *la aulki* adibideek onarpen maila berdina izan dute, %58,33. Halere, oso ondo balioztatuak izan direnen artean, hobetsiena *la atea* da, *-a* amaiera + itzulpeneko baliokidea delarik. Ondoren *la aulki*, itzulpenekoa baliokidea delarik baina *-a* amaiera gabea eta gainera, izena *a-z* hasteak ere horren alde egiten duelakoan nago. Eta azkenik, *junto a la etxe*, PS dena eta *-a* amaierarik gabea.


Beraz, jasotako datuen arabera, bi fenomenoek bat egiten dutenean onarpen maila handiena lortzen dela ikus daiteke, hots, itzulpeneko genero baliokidea denean eta amaiera fonologikoa ere bat datorrenean, emaitza onena dela. Ikus 5. grafikoa.

5. grafikoa. D fem/itzulpen baliokidea + N euskaraz



D femeninoa dutenetan baina itzulpeneko baliokidea mantentzen ez denean, ordea, onarpen maila gutxien izan dute, %19,44. Onartuena *en la zuhaitz*, ondoren *la bihotza* eta azkenik *la erloju*. Hauen artean *la bihotza*-k onarpen gehiago izatea aurreikusi dugu, *-a* amaiera fonologikoa duelako, baina ez du izan. Beraz, 2. aurreikuspenarekin ez dator bat. *La erloju* adibideak onarpen maila gutxien izan du, nire ustez, *el erloju* entzuna eta batzuek erabilitako DS nahasia delako. Baina 6. grafiko honek ere aurretik esandakoa baieztatzen du, alegia, itzulpeko generoaren baliokidea ez dutenek onarpen maila askoz baxuagoa dutela eta amaiera fonologikoak uste baino garrantzi gutxiago duela. Ikusi 6. grafiko hau.

6. grafikoa. D fem/itzulpen baliokidea EZ + N euskaraz



4. Ondorioak

Lan honen helburua euskara-gaztelania elebidun gazteen KA fenomenoaren DS nahasian ikerketara hurbiltzea izan da, Licerias *et al.*-en galdeketa baliatuz, gaztelaniako determinatzailea euskarazko izen batekin jartzean, determinatzaile horren generoa zerk zehazten duen jakiteko.

Aurreko literaturan oinarrituta bost aurreikuspen hartu ditugu lanaren abiapuntu eta emaitzek erakutsi dute lehen aurreikuspena betetzen dela, alegia, Dren generoa itzulpeneko generoaren baliokideak zehazten duela. Galdeketa emaitzak ikusita, 3. eta 5. grafikoetan onarpen maila altuena egonik, itzulpeneko izenaren genero baliokidea mantentzeak garrantzia duela ikusi da. Itzulpeneko izenaren genero baliokidea betetzen dutenek onarpen handiagoa izan dute (%52,8) ez dutenek baino (%29,17).

Bigarren aurreikuspenari dagokionez, ordea, gure lan esperimental baliatuta, bestelako emaitzak atera dira. Izenaren amaiera fonologikoak baino, itzulpeneko generoaren baliokidea mantentzeak garrantzi handiagoa duela ikusi da, generoaren hautematea piztuta dagoelaren seinale. Honen adierazgarri da *la bihotza* (%16,67) DS nahasia, *en la zuhaitz* (%33,34) baino onarpen gutxiago izan duela, amaieran *-a* izan arren oso onarpen gutxi izan duelako.

Alabaina, itzulpeneko baliokidea mantentzen den kasuetan, amaiera fonologikoak ere laguntzen duela ikusi da *la atea* adibidean. Beraz, amaiera fonologikoak eta itzulpeneko baliokideak bat egiten dutenean DS nahasi onartuena izango dela ondorioztatu dugu.

Kontuan izan behar da lagin txiki batekin frogatu dela Licerias *et al.*-en galdeketa, baina joera zein den ikusteko baliagarria izan da. Parafita *et al.*-en (2015) hipotesia ezin da baieztatu, hots, gaztelaniazko D femeninoa nabarmen maskulinoa baino gehiago ageri dela, itzulpenean femeninoa denean baina baita batzuetan maskulinoa denean ere, ez eta femeninoa euskarazko oinarritzko forma denik ere. Bai, ordea, Licerias *et al.*-ena (2008), elebidunetan generoaren ezaugarria piztuta dagoela eta antzeman egiten dutela.

Ikusteke dago DS nahasietan kategoria funtzionala gaztelaniak emango duen itzulpeneko generoa mantentzen bada baina bestela, D euskarazkoa lehenetsiko den. Baita 4. aurreikuspena ere, DS nahasietan *Specificity Hypothesis* delakoa beteko den ala ez, alegia. DS nahasietako determinatzailean perpaus nagusiko hizkuntza mantentzea lehenetsiko dela pentsatzekoa da, baina ikusteke dago. Horrez gain, Anderson &

Toribio-ren (2007) hipotesiak ezin izan dira testatu. Bata, elebidunek sentiberatasun desberdina erakuts dezaketela ukipenaren ondoriozko fenomeno batzuen eta beste batzuen aurrean. Bestea, elebitasun motaren arabera, sentiberatasun desberdina erakuts dezaketela.

Oraindik lan handia egiteko dagoela eta askorako ematen duen gaia dela ikusi dut. Nik DS nahasien inguruan hurbilpen bat besterik ez dut egin eta gerora baliagarria izan daitezkeen aldibereko ekoizpeneko elebidunen DS nahasien adibideak biltzen hasi naiz, lana zabalik utzita ikertzen jarraitzeko.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Anderson, T. K. & Toribio, A., J. (2007). Attitudes towards lexical borrowing and intra-sentential code-switching among Spanish-English bilinguals. *Spanish in context* 4:2, 217-240.

Aurrekoetxea, G. & L. Unamuno (2011) “Perpauk arteko Euskara-gaztelania kode-aldaketa”, *Euskalingua* 19, 25-30.

Deuchar, M., Epelde, I., Oyharçabal, B., & Parafita Couto, M. C. (2010). “Gender agreement in Spanish–Basque and Spanish–English nominal constructions”. Aurkeztua XXXIX Simposio Internacional de la SEL, Santiago de Compostela, Espainia.

Etxebarria, Maitena (2003). “Español y euskera en contacto: resultados lingüísticos”. *Linred* 1.

Ezeizabarrena, M.J., & Munarriz, A. (2012). Orden de palabras en los enunciados nahasis (euskera-castellano) de bilingües típicos y atípicos. In A.M. Cestero Mancera, I. Molina Martos & F. Paredes García (eds.), *La lengua, lugar de encuentro*, pp. 3893-3902. Alcalá de Henares: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Alcalá.

Ezeizabarrena, M. J. (2014). “Kode alternantzia elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri”. In Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (Eds.) *Eridenen duzu zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947–2008)*. Bilbao: Servicio de Publicación de la Universidad del País Vasco, 207–225

Ibarra, O. (2011). Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart*, 26, 277-298.

Liceras, Juana M., Raquel Fernández Fuertes, Susana Perales, Rocío Pérez-Tattam & Kenton Todd Spradlin. (2008). "Gender and Gender Agreement in Bilingual Native and Non-native Grammars: A View from Child and Adult Functional-lexical Mixings." *Lingua* 118: 827–851. DOI: 10.1016/j.lingua.2007.05.006

Liceras Juana M., Raquel Fernández Fuertes, Aurora Bel, Cristina Martínez (2012). "The mental representation of Gender and Agreement Features in Child 2L1 and Child L2 grammars: Insights from code-switching." UIC Bilingualism Forum-en egindako hitzaldia 2012-10-4ean, University of Illinois at Chicago.

Munarriz, A. & Parafita Couto, M.C. (2014). "¿Cómo estudiar el cambio de código? Incorporación de diferentes metodologías en el caso de varias comunidades bilingües." *Lapurdum* VII: 43-73.

Parafita Couto, M.C., Munarriz, A., Epelde, I., Deuchar, M. & Oyharçabal, M. (2015). Gender conflict resolution in Spanish-Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 18 (2), 304-323.


Poplack, S. (1980). Sometimes I'll start a sentence in English y termino en español: toward a typology of code-switching. *Linguistics* 8, pp. 581-618.

Rotaetxe, K. (1999). "Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas" *Fontes Linguae Vasconum*, 80, 59-72.

6. Eranskinak

1. eranskina. Berotzeko galdeketa eredua

2. PRÁCTICA



¿Dónde está la jirafa?

- La jirafa está zuhaitzen ondoan.

EXCELENTE BASTANTE BIEN BASTANTE MAL MUY MAL

PRÁCTICA 1

2. eranskina. Galdeketa eredua

3. CUESTIONARIO




Zer egiten ari da?


- Bera comida prestatzen ari da.

22


3. eranskina. Erantzun orria

Language Acquisition Research Laboratory
<http://artsites.uottawa.ca/kr/lab>









Language Acquisition Laboratory
 University of Valladolid
<http://www.uva.es/uvalal>



KODE ALTERNANTZIA GALDEKETA / CUESTIONARIO DE ALTERNANCIA DE CÓDIGO
 Hoja de respuestas (Version A) CONCORD

Izena/Nombre: _____ Data/Fecha: _____

Escriba una X en el casillero que corresponda a su respuesta.

	 Excelente	 Bastante bien	 Bastante mal	 Muy mal
22				
11				
21				
15				
16				
2				
26				
18				
17				
1				
28				
27				
9				
19				
5				
12				
14				
30				
24				
10				
13				
25				
4				
6				
3				
29				
20				
7				
23				
8				